

azpeitia | plan 2025 | estrategikoa

Herritarren mahaia

Uztailaren 10ean ospatutako bileraren akta

LEKUA: Azpeitiko udaletxean
ORDUA: 19:00etatik 20:45ak arte

BERTARATUTAKOAK:

Begoña Beobide (Loiola Berrikuntza Fundazioa), Itziar Abarisketa (Ezagutza Gunea), Alberto Izagirre (Urola Ikastola), Garbiñe Bereziartua (Zero Zabor), José M^a Aizpurua (Baserritik.com), Naiara Zubikarai (Baserritik.com), Amaia Irazusta (Biourkizu), Jon Garagarza (Elkar-ekin taldea), Miren Larrea (Orchestra), Eneko Etxeberria (Alkatea), Izaskun Ceciaga (udal teknikaria).

DINAMIZATZAILEAK:

Ana López, Ainhoa Gea eta Ainhoa Mitxelena (Minuartia Enea/Ikertalde laguntza teknikoa)

GAI ORDENA

1. Jasotako ekarpenak ezagutarazi eta horien balorazioa eman
2. Herritarren mahaiaren funtzionamendua Planaren ezarpen eta segimenduan: proposamen bat azaldu eta eztabaidatu
3. Azpeitia 2025 Ikuspegia deskribatzeko dinamika

LABURPENA

1. Jasotako ekarpenak ezagutarazi eta horien balorazioa eman

Bertaratutakoei ongi etorria eman ondoren, Azpeitia 2025 prozesua amaitzear dagoela azaltzen zaie. Azkeneko bileran Ekintza Plana aurkeztu eta, hortik aurrera, ekarpenak egiteko 15 egunetako epea eman zitzaie gogoratzen zaie. Epe horretan guztira 3 eragileen ekarpenak jaso direla aipatzen da, horietako bik lehen sektorea ordezkatzeko dutelarik. Bestalde, orokorrean, ekarpen gehienak jada proposatzen diren ekintzen barruan jaso

daitezkeela azaltzen da. Honekin lotuta, teknikariek orain ekintzak deskribatzen ari direnez, ekarpenak beraiei bidaliko zaizkiela azaltzen da, ahal den neurrian ekintzetan bertan sar ditzaten.

- Lehen sektoreari buruzko ekarpen gehienak 1.2.1 eta 1.2.2. ekintzetan jasoko lirateke. Honetaz gain, hondakinen lerroan, kontsumo arduratsua eta tokiko produktuen sustapenari dagokion programan bertan ere sartuta egongo lirateke.
- Bestalde, lehen sektorea eta turismoa batzen dituen beste proposamena, 1.5.3. ekintzaren barne jasoko litzateke, non udalerriko turismo “ibilbide orria” definitzeko beharra azaltzen den.
- Turismoarekin jarraituz, Aita Santua Azpeitira erakartzen saiatzeari buruzko beste proposamen bat jasotzen da. Honekin lotuta, Inaziotar Bidearen inguruan udalak ere pausuak ematen hasi dela aipatzen da eta honen inguruko ekintzaren bat Ekintza Planean jasoko dela aipatzen da.

Honekin erlaziorik ez duten gainontzeko ekarpenei buruz ondoko azalpena ematen da:

- Zahar-etxean euskal prentsarik ez egotearen egoerari irtenbide bat ematea: hain proposamen zehatza denez, Planean lekurik ez zaiola ikusten aipatzen da baina eskaera dagokion arduradunari zabalduko zaiola komentatzen da.
- Etorkinentzako harrera-plan egoki bat diseinatu eta martxan jartzea eta harrera-plan horretan hizkuntza-eskakizunak zehaztea: 2.5.2. ekintzaren barne jasota dago.
- Euskara-Mahaia funtzionamenduan jartzea: dagokion arduradunari proposamena zuzenduko zaiola aipatzen da.


Azkenik, hondakinen inguruan jaso diren ekarpenak, udazkena aldera gai honi buruz udalak martxan jarriko duen eztabaida prozesuaren eremuan lantzeko aukera izango dela azaltzen da.

Ekarpenak egiteko oraindik tarterik al dagoen galdetzen da. Laguntza teknikoak prozesuak, formalki, epe batzuk bete behar dituela azaltzen du. Hala ere, behin Plana onartzen denean aurreikusten den urteroko kudeaketa sistemaren oinarriak azaltzen dira, Plana errealitateari ahalik eta modu egokienean erantzun dezan, urtero eguneratu daitekeela azpimarratuz.

2. Herritarren mahaiaren funtzionamendua Planaren ezarpen eta segimenduan: proposamen bat azaldu eta eztabaidatu

Horrekin lotuta, hemendik aurrera herritarren mahaiak izango duen funtzionamenduaren inguruan eztabaidatzen da. Jarraian kudeaketa sistemaren elementu nagusiak azaltzen dira:

- Planaren ebaluazioa
- Adierazleen kalkulua
- Planaren programazioa




Iturria: Euskadiko udaletan Tokiko Agenda 21-en ekintza planen urteko Programaziorako eta Ebaluziorako gida metodologikoa (IHOBE, 2006).

Urtero, urtearen azken hiru hilekoan, alde batetik ebaluazioaren bitartez Plana zenbateraino gauzatzen ari den aztertu eta, bestalde, burutzen ari diren ekintzekin zer nolako emaitzak lortzen ari diren neurtuko dela aipatzen da. Hortik abiatuta, datorren urtera begira ze jarduerak martxan jar daitezkeen programatu dela azaltzen da, hauek aurrekontuetan txertatuta egon beharko liratekeela azpimarratuz, beraien gauzatzea bermatzearen.

Hau azaldu ondoren, “herritarren mahaia” udalerrian martxan dagoen Denon Artean prozesuaren eremuan non kokatu daitezkeen inguruko proposamen bat aurkezten da. Prozesuaren hasieratik helburua udalerrian parte hartze eredu bakar bat sortzea izan dela azaltzen da, prozesu paraleloak saihestuz.

Jarraian, planteamendu hau irudikatzen da. Bertan, Denon Artean egitura azaltzen da, non mahai sektorialak eta auzoak ordezkatzeko dituzten mahaiak ikus daitezkeen. Mahai hauek Herri Kontseiluan bateratzen direla azaltzen da, hau aurrekontu parte-hartzaileak bideratzeko azken pausua delarik. “Herritarren mahaia” Herri Kontseiluari lotuta irudikatzen da, herria bere osotasunean eta ikuspegi estrategikoarekin aztertzeko bertan parte hartzen dutenen gaitasuna baloreen jarriz. Gaitasun honek mahai honen beharra agerian jartzen duela azpimarratzen da. Bertan, planaren gauzatze-mailaren informazioan eta adierazleen emaitzetan oinarrituta, hurrengo urtean martxan jar daitezkeen jardueren proposamen bat egin eta, aurrekontu parte-hartzaileekin lotuko da.



Iturria: norberak egina

Hau guztia azaldu ondoren, laguntza teknikoak “Herritarren mahaia”-ren funtzionamendurako proposamen bat azaltzen du:

- Herritarren mahaia gutxienez urtean behin bilduko da.
- Bertan, Planaren gauzatze-maila eta adierazleen emaitzak aurkeztuko dira.
- Emaitza horiek aztertu eta baloratuko dira
- Hurrengo urtera begira, jarduera zehatz batzuk proposatuko dira.
- Udalak, jarduera horiek baloratuko ditu eta, posible denean, aurrekontuetan sartuko ditu.

Ondoren, bertaratutakoei eztabaidarako hiru galdera zabaltzen zaizkie. Jarraian, galdera horien inguruan jasotako ekarpenak azaltzen dira:

“Herritarren mahaia”-ri izen bat jarriko zenioke? Bururatzen al zaizu baten bat?

Bertaratutako guztiek **izena egokia** iruditzen zaiela aipatzen dute eta, beraz, ez dute hau aldatzeko beharrik ikusten.

Ondo iruditzen al zaizu urtean behin biltzea? Bileran gehiago egin beharko liratekeela uste al duzu? Zein helburuekin?

Honen inguruan zalantza gehiago sortzen dira. Alde batetik, bertaratutako batek mahai honen eginkizunei buruz bere zalantzak azaltzen ditu. Laguntza teknikoak lehen aipatutako planaren kudeaketa sistema berriz azaltzen du, ekintza bakoitza karakterizatuta egongo dela azalduz (udal arduradun bat, epea, kostua lehentasuna...etab.). Herritarrek, mahai honen eremuan, urtero lortzen ari diren emaitzak ikusita, jarduera zehatzak proposatzeko aukera izango dutela gogoratzen da, udalerrria bere osotasunean ikusteko euren gaitasuna berriz azpimarratuz.

Azkenean, egokiena urtean bi bilera egitea dela komentatzen da. Lehenengo bilera, ekaina aldera, non Ekintza Planaren gauzatze-maila eta adierazleen emaitzak azalduko diren; eta bigarrena, urria-azaroa aldera, non aurrekontuetan txertatzeko jarduera zehatzak proposatuko diren.

Mahai honen funtzionamendua eta udala eta parte-hartzaileen konpromisoak jasoko dituen araudiren bat beharrezkotzat jotzen al duzu?

Araudi baten beharrari dagokionez, “Herritarren Mahaia”-n Denon Artean egituran dauden mahai sektorial bakoitzeko kide bat ordezkatuta egon beharko lukeela aipatzen da, ordezkari hauek bi noranzkoko eginkizun edo betebeharrak izan beharko lituzkeelarik. Funtzionamendu hau eta udalak mahai honekiko bete beharko lituzkeen konpromisoak nolabait finkatu eta arautzea komenigarria dela aipatzen da.


3. Azpeitia 2025 Ikuspegia deskribatzeko dinamika: zer nolako Azpeitia imajinatzen dugu 2015ean?

Azkenik, Azpeitia 2025 Ikuspegia deskribatzeko dinamika bat egiten da, aurretik, Plan baten ikuspegia edo bisioa zer den azalduz. Teknikariek beste dinamika bat egin zela aipatzen da eta bertan ateratako ideiak eta “hitz-mapa” erakusten da. Jarraian, dinamika azaltzen da:

- Azpeitia 2025 Ikuspegia erdi-idatzita ekarri da, hutsuneekin.
- Teknikariek aipatutako ideiei guztiak kolorezko txartel batzuetan idatzita daude.
- Txartelak hutsuneetan kokatu behar dira eta ideiei berriren bat txertatu nahi bada, txartel berri batean idatzeko aukera ere badago.
- Idatzita dagoena ezabatu, zuzendu edo kendu daiteke.



Ondorengo irudian dinamika ondoren lortutako emaitza erakusten da. Laguntza teknikoak esaldia zuzen idatzita gelditu arren, testua moldatuko duela aipatzen du.



Azkenik, laguntza teknikoak eta Alkateak bertaratutakoei eskerrak ematen dizkie prozesu osoan zehar egindako lau bileretara etortzeagatik eta bertan izan duten inplikazioagatik.

Bilerari amaiera ematen zaio.